

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/5/21 | 324

🌀	Gizarte zerbitzuak landa eremura hurbiltzen
🌀	Herri ostatuaren egoera aztertzen
🌀	Suminez
🌀	Tolosako irakurle taldea abian
🌀	Maiatza eta ekaina mendiari lotuta

Nekazaritza **u**s tiapenen
integrazio paisajistikoari
buruzko azterketa pilotua

MAIATZA CITROËNEN HILABETEA DA

CITROËN GAMA BERE MOMENTURIK ONENEAN



CITROËN C1 **6.900€** ik. + ARRIBAZU ONETARRAKO ASEGURUA OFINATU

CITROËN PICASSO **12.500€** ik. + ARRIBAZU ONETARRAKO ASEGURUA OFINATU

CITROËN C4 SEDAN **15.500€** ik. + ARRIBAZU ONETARRAKO ASEGURUA OFINATU



10.700€ ik. + ARRIBAZU ONETARRAKO ASEGURUA OFINATU

hARRIA gresak

25 urte zure bainugela janzten
Neurrira egindako bainugelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com

Interiorista

IRIVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIA GUNEA Z/G. TEL: 943 651 842 ANCETA/TOLOSA

aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

ZEUK AUKERATU

www.multioplicasgipuzkoa.com

- beturreko graduatuekin **DOAN** eguzkitako graduatuekin
- eguzkitako beturreko graduatuekin **57€**
- graduotutako eguzkitako lenteekin **35€**
- markako eguzkitako beturrekoekin **DOAN** eguzkitako beturrekoekin

San Francisco, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehenengoa zerbitzu optikoetan

ZEUK AUKERATU

www.multioplicasgipuzkoa.com

- beturreko graduatuekin **DOAN** eguzkitako graduatuekin
- eguzkitako beturreko graduatuekin **57€**
- graduotutako eguzkitako lenteekin **35€**
- markako eguzkitako beturrekoekin **DOAN** eguzkitako beturrekoekin

San Francisco, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehenengoa zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
 Banatzaileak: Olatz,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria dean banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Lehen sektorearen garapena eta integrazio paisajistikoa

Landa eremu estrategikoetan nekazaritza ustiapenen integrazio paisajistikokoaren egokitzapena". Izenburu hori du aditu talde batek Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartearen eskariz egin duen azterketak. Ez da ohiko gaia; izatez, integrazio paisajistikokoaren inguruan eskualdean egin den lehendabiziko ikerketa da hau. Bertan, Aralarko Parke Naturalaren inguruan dauden nekazaritza ustiapenen integrazio paisajistikoa aztertu da. Eta hau guztia zertarako? Tolomendin eman dizkigute argibide guztiak.

8-11. orrialdeak

«Ska musika jotzen dugu, punka eta rockarekin nahastu eta ukitu latinoaz osatuta. Gure musika, festa egiteko musika da. Kantak beti juerga egiteko pentsatzen ditugu, beti ere mezuari tokia emanaz».

Elkarrizketa: Enrique Rubiños

16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Ion Azpiroz	4-5
	Normalizazioa: Hizkuntz eskubideei buruzko lehenengo erreportaia	6-7
	Eskualdeko albisteak: Gizarte zerbitzuak landa eremura hurbiltzen	12-13
	Eskualdeko albisteak: Herriko ostatuen egoera	14-15
	Irakurlearen begietatik: Suminez	19
	Kultura: Abian da Tolosako irakurle taldea	20-21
	Kirol saltsa: Mendi martxeri buruzko informazioa	22-23

Kontra**b**andoa



Txomin Garmendia
Bertsolaria

4 Gure erriaren istori aundi bat kontrabandoan dagoela esan behar, "gaueko-lana" ere deitu izan zaio; eta ondo esana gaiñera, le-gearen kontra dabillenen gaua bai du lagunik aundiena.

Probintzi batetik bestera igarotzeko era bazan naiko traba, "arbitroak" izeneko gizonak izaten ziran etxe eta guzti mugan eta aieri kontu eman bear; pagatu bearrak ematen zun miñik aundiena. Adibidez, guk Berrobitik zazpi bat kilometrora gendun Naparroko muga, eta jai arratsaldetan gogozko gedun Aresora edo Leitzara joatea, bizikleta zarren bat baldin bagendun behintzat; muga ori igarotzeko sos batzuk pagatu egin bear ordea.

Naparro, gure onen aldean aberatsa degu, batez ere, gariz eta ardoz; gose urte aitetan eta abar, zenbat kontrabando egin ote zan? Lazoan eroriak ere etziran gutxi ordea, eta ori izaten zan penagarria.

Goseak begiak argiak ditu, eta errian bertan zegoen kontrabandoa egin bearra; adibidez, baserriero ereiten zan garia eta kosetxa ori el-tzen zanean errotak ixten zizkiguten. Orduko asto eta zaldiak ikasi zuten gauetz ibiltzea zer zan. Berrobiko baseritar batzuk badira munta ederrak pagatuak gure aita zana tarteko zala, txekorrak kontrabandoan saldu zituztelako. "Tarragona", soiñujole pamatu zanari entzun nion bein, Amezketara San Barlotometan soiñujotzera joan eta etxerakoan, soiñua bertan utzita kaja nola ekartzen zun babarrunaz beteta. Soiñujotzearen soldata baiño ohea izango zan ura! Beste baseritarren batek, txerria legez

kanpo il omen zun eta baita erriko albaitea norbaitek jakiñaren gainean jarri ere; urrengo igandean, baseritar ori errira jetxi zanean, albaitea:

- Adixkidea, zuk izan bear dezu txerria ixilka ila?

Baserritarrak:

- Ixilka? Ez, ez, kurrinka ots ederrak atera zitun...

Zigor, kontrabando eta abar, baserritarrak ez gendun goserik pasa; inbiri eta ezin-eramanak izaten ziran orduan ere, eta salatariak izaten ziran etsairik txarrenak. Aiek "guardia-zibillak" baiño gaitz gehiago egiten zuten.

Kontuak kontu, Euskadi erdibitzen dun Prantzi eta Espaiñiko muga ori izango zen kontrabando lekuri nagusia aurrez nion bezala; jakiña, Baztan eta inguruetako erritan etzan industriarik eta bi bide zeuden baserria, artzantza eta basotik kanpora: Amerikara edo kontrabandora. Izan zan garai bat, portugesak Prantzira pasatzekoa ere; jakiten gendunez, Prantzin langille exkasia zegoe-nez, aruntz pasa ezker, nazionalitatea eta lana seguru zeuzkaten. Orretan komeriak ordea, mugalari oiek beti etziran ondo portatu gaiñera; bat baiño geiago badira Prantzi esanda soldata ederra kontrabando ondoren muga baiño lenago utziak. Portugesak aiek, Prantzira pasatzeko zoria izan batzuten etziran asarre izango; mendi iksugarri oietan

galduta goseak eta otzak illak ere, badira. Xalbador zenak ere, Prantzi aldetik mugako zanez, gertakari triste baten berri ematen digu "Odolaren Mintzoa" liburuan. Etziran nunbait Portugesak bakarrik Prantzi zale zirenak, baita aprikatarrak ere, eta iru gizon beltzen gorputzak aurkitu zituzten Ezpeletako mendietan otzak eta goseak il da. Lana egiñez ogia jan nai, eta horrela ibili bearra tristea da gero!

Zenbat istori ote da zorioneko muga orri esker? Zugarramurditar batek kontatu zidana ere gogoan det: gau guztia igarota badator goizean etxera zaku kargatua bizkarrean dula, eta ikusi ditu etxeko ezkaratzean guardia-zibillak zai dauzkala; igesari ematen badio galduta dago, eta zer egin du? Eskale bat balitz bezala etxera joan eta etxeok limosna eman ezagutzen ez balute bezala. Ala, guardia-zibil oiek dena sinistu eta libre gure kontrabandista.

Dirua dabillenen lekuan pekatua ere, ez da izaten urrut; guardia-zibil oiek ere naiko juxtu bizitzen omen ziran, eta lesakatar batek esaten didanez, eskupeko bat pozik artzen omen zuten eta orduan denak ondo.

Gaur esan daiteke, Leitzako eta Lesakako pabrikak jarri ziran ezker, ez dagoela kontrabando bearrak, ez Amerikarenik ere. Kontrabandoa izango da gaur ere, baiña beste mailla batekoa eta ez edozeinentzat.

Mendia gozatu eta zaindu

Jakina dugu, ez da berria, euskaldunok mendira joateko ohitura eta pasioa dugula, noski, mendi inguruan bizirik... Hortxe ditugu, Himalayara, Andeetara eta Alpeetara edota Pirineotara joaten diren guzti horiek, baina badira milaka mendigoizale geure lurraldeko zenbait menditara hurbiltzen direnak ere.

Gaur jada ez gara konformatzen mendira igotzearekin; mendira oinez lasai joan eta hamaiketakoarekin eta ardo zatoarekin goiz pasa egitea ez da nahikoa. Pagadi eder bat zeharkatu, erreka txiki bat saltoz pasatzea edota aldapa gogor bati aurre egitea.

Zorionez edo zoritxarrez, bere alde onak ere baditu eta, ia mendigoizale guztiak Gipuzkoako bost edo sei menditara joaten gara, esanguratsuenak horietatik dira eta: Txindoki, Aitzgorri, Adarra, Ernio eta agian Aiako harriak, eta horietatik kontzentratzen gara denak. Zergatik diot alde onak ere izan ditzakeela? Noski, bestelako mendien edertasuna gordetzen delako eta ez ditugulako hainbeste matxakaten.

Baina pena ere bada ezta? Gipuzkoan eta inguruetan badira eta mendi polit eta ederak, Mendaur, Balerdi, Aratz eta beste hainbat mendi punta, bailara, pagadi eta erreka.

Hortantxe gabiltz hainbat elkarte, beste mendi eta inguru hauek ezagutarazten. Horretarako imajinazioa landuz hainbat proposamen egiten

ditugu. Mota desberdinetako proposamenak, jende desberdinari bideraturiko proposamenak.

Aitzkorriko maratoiak zenbat jende hurbildu duen Oltzako eta Urbiako kanpetara edota Aratzeko inguruetara. Aralarreko 14 orduak milaka partehartzaile eta zenbat famili eta lagun pasatzen dira Uli eta Errenaga ingurutik, minetatik behera erreka errekaren putzuak erakutsirik, Hiru Handiak ta beste eskala txikiago batean Ernioko itzulia, Araxeseko itzulia, etab.

Lehen martxa neurtuak deitzen ziren horiek, mendi martxa, igoera bertikala, maratoia edo Ultrarailtan bihurtu dira, baina denak bere neurrian mendiaz eta mendiarekin hartu-eman izateko aitzakia besterik ez dira eta horrek aberastasuna ematen die elkarte eta antolakuntza guztiei.

Mendira bakarrik joaten denik ere oraindik bada, zaitoa eta bokadiloa hartu eta martxa egiteko aukera, beste batzuk antolaketa baten barruan nahiago dute eta beste "matxaka" batzuk maratoian edo Ehunmilak probatan arituko dira.

Batzuk ehizean zuhaitz bati loturik edo perretxikutan arbolari bati bueltak ematen ibiliko dira, beste batzuk zuzen zuzen mendi gailurrera abiatuko eta hainbatek mendi tontorrera igo baino zeharkaldiak egitea nahiago. Hori dute Gipuzkoa eta Euskal Herriko mendiak, jende guztia jaso eta ibilbide



Jon Azpiroz

Bedaioako Artubi Elkarteko kidea

Mendia da azkeneko egunetan, prentsan eta koadrila desberdinetan hizketagai. Mendia eta mendira hurbiltzeko mota desberdinak. Asteburu honetan nora goaz? Zein menditara?

desberdinetan zehar sakabantzeko gaintasuna dutela.

Baina mendia, etxea eta beste gauza asko bezala zaindu beharra dago. Mendiaz eta mendiarekin beste jende mota asko bizi baita. Nahiz eta gehienok aisialdirako erabili, badira nekazari eta abeltzain ugari mendia txukun mantentzen dutenak ondoren herriarrok disfruta dezagun. Lan hori ezkutukoa da eta ez da baloratua izaten, baina argi izan behar dugu, zaindu gabeko zelai bat, sasiekin zikinduko dela eta bidezidorrak itxi egingo direla baldin eta norbaitek irekita mantentzen ez baditu. Honela, belardiak eta bertan diren animaliak errespetatu

behar dira. Adibide txiki batez nahikoa da irekitako ataka pasa ondoren ixtea eta zer esanik ez, hamaiketakoaren paperak eta naranja azalak ere motxilan bueltatzea eta zaka-rrontzia botatzea.

Hortaz, mendiaz eta inguruaz disfruta dezagun, eman diozaiogun geure gorputzari zoriona eta mantentzen ditugun garbi larre eta mendiak hurrengoek ere modu desberdinetan errespetatu eta disfruta dezaten.

Ah Ohar bat. Ekainak 20ean Bedaioako mendi martxa dago, oinez zein mendi bizikletaz eta nahi duenak mendi duatloia egin dezake. Gonbidaturik zaudete denak.



Zenbat aldiz gertatu zaizu toki batera joan, euskaraz hasi eta solaskideak gaztelania egitera behartzea? Zer eskubide dauzkagu halako egoeren aurrean? Eskubide berak ditugu Donostiako merkataritza zentro batean, Altzoko bake epaitegian, Renferen geltokian edo Ibarrako osasun etxean?

Hara, zergatik ez euskaraz? (I)

6 Halako egoera asko araututa daude legez, eta horien oinarrian hizkuntz eskubideak daude. Hurrengo asteetan, txoko honetan, euskarari lotutako eskubideez eta euskaraz egiteko aukerez ariko gara; betiere, Tolosaldeko hizkuntz errealitatean oinarrituta.

Zer dira hizkuntz eskubideak?

Euskaraz egiteko eskubideez ari garenean, hizkuntz eskubideez hitz egin behar dugu ezinbestean. Zer dira, bada, hizkuntz eskubideak? Bi hitzetan esateko, giza eskubideak dira, bi aldekerespetatu beharrekoak, eta lotuta daude hizkuntzaren ofizialtasunarekin eta bereizketa ezarekin.

Giza eskubideak bezala, ez dira gauza lauso eta zehaztugabeak: zehatz-zehatzak dira, eta legez aitortuta eta legeetan jasota ditugu. Esate baterako, EAEko erakunde publiko guztiek (udal

mailakoek, autonomikoek eta estatu mailakoek) bermatu egin behar dute legez euskaldunari ahozko tratua euskaraz eman ahal izatea. Hartara, epaitegira, osasun etxera, Jaurlearitzaren bulegora edo INEMen egoitzara joatean, aurrean dugun langilea ez bada gai guri ulertzeko, beste langile bat etor dadin eska dezakegu, ezin baitigute ukatu administrazioarekin euskaraz jarduteko eskubidea.

Hizkuntz eskubideek norabide bikoitza dute; alegia, EAEko herritarrok eskubidea dugu erakunde publikoetako langileekin euskaraz jarduteko, baita hark guri euskaraz egin diezagun ere. Azken batean, harremanaren bi norabideak euskaraz gauzatzeko eskubidea dugu (guk haiei euskaraz eta haiek guri ere bai).

Euskaraz gain, Tolosaldean, gaztelania ere bada hizkuntza ofiziala. Eta hori berdintasunean ulertu behar da; hau da, gaztelania ez da euskara baino "ofizialagoa". Beraz,

euskaldunak ezin du kalterik izan hizkuntza ofizial bat edo beste erabiltzeagatik. Hartara, tramite administratibo batean, administrazioak ezin digu atzera bota euskarazko eskaera bat (gaztelaniazkoa atzera bota ezin dezakeen bezala) edo inork ezin digu esan eskaera euskaraz egoteagatik erantzuna egiteko denbora gehiago behar dutenik.

Baina urraketa guztiak ez dira legez kanpokoak

Erakunde publikoekin ez ezik enpresekin eta abarrekin ere badugu euskaraz jarduteko eskubidea. Baten batek pentsa dezake: "Nola ez dugu, bada, eskubiderik izango Alegian edo Euskal Herriko beste herri batean euskaraz egiteko?". Teorian, eskubidea bai, badugu, baina kontua da legeak ez dizkigula euskaldunoi aitortzen eskubide batzuk kasu eta eremu batzuetan. Hartara, hizkuntz eskubideen urraketa batzuk legezkoak izango dira. Aldizkariz aldizkari iku-



Galtzaundi 324
10eko maiatzak 21



BENTA ALDEA

JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

Kultur ekitaldiak



Malatzak 30, Igandea

**Autobusa
Ibilaldia Bermeon**
Irteera: 9:00etan Tren geltokitik
Itzulera: 19:00etan Bermeotik
Izen ematea: Galtzaundin
Prezioa: 12€ (bazkideak 10€)

siko dugu non diren urraketak legezkoak eta non legez kontrakoak, eta zer-nolako aukera dugun euskarari eusteko.

Eta Tolosaldean, zer?

Euskaldun gisa hizkuntza eskubideak urratzen badizkizute, salaketa jar dezakezu. Tolosaldean, hamaika toki dituzu kexak jartzeko: UEMA-ko udaletxeak, Villabonako liburutegia eta Ibarra nahiz Tolosako kultur etxeak. Toki horietan, inprimaki batzuk eta buzoi bat izango dituzu: idatzi inprimakian zuri gertatutakoa eta sartu papera buzoiaren. Kexa behar den tokira helaraziko dute, Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren bidez.

Txilipurdika ludoteka 2010

Galtzaundi Euskara Taldeak aurten ere ludoteka antolatu du 3-10 urte bitarteko haurrentzat uztailaren 1etik 30era bitarte (biak barne). Ordutegia goizeko 9:00etik 13:00era izango da, asteleheneretik ostiralera. Bertan jolasak, eskulanak, irteerak, igerilekua, ipuin kontalaria... izango dituzte. Izena emateko epea ekainaren 1etik 18ra bitarte izango da zabalik, goizeko 9:30etatik eguerdiko 13:30etara Galtzaundiko egoitzan, Nafarroa etorbidea 6 behean, Tolosan. Informazio gehiago 943 655 004 telefonon.

Izen ematea

-Izen ematera etortzerakoan, gurasoei emango zaie:
*Ordainagiria
-Izena ematerakoan gurasoei eskatuko zaie:
*Telefono kontaktua, helbidea eta datu guztiak.
*Haurren seguritate sozialaren txartelaren fotokopia.

*Prezioa: 85€ haur bat
140€ bi anai-arreba
180€ hiru anai-arreba

*Igerilekuko prezioa: 20€ (igerilekuko bonoa dutenek ere prezio bera ordainduko dute). Igerilekuko kale bat alokatuko dugu haur guztiak segurtasun handiagoa izan dezaten eta begiraleen zainketa errazagoa izan dadin. Ezinbestekoa da igeri egiten jakitea eta 6 urtetik gorakoak izan behar dute.
- 2 eta 11 urtekoak printzipioz ez dira sartzen baina plazak gelditu ezkerok hauen ere sartzeko aukera izango dute.

TXOKOLATEGIA

KAFETEGIA

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

shanti kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa

HALCON BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113

errotatxo okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

batek ez du be

Lehen sektorearen garapena eta integrazio paisajistikoa: **besteak kentzen**

“Landa eremu estrategikoetan nekazaritza ustiapenen integrazio paisajistikoaren egokitzapena”. Izenburu hori du aditu talde batek Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartearen eskariz egin duen azterketak. Ez da ohiko gaia; ⁹ izatez, integrazio paisajistikoaren inguruan eskualdean egin den lehendabiziko ikerketa da hau. Bertan, Aralarko Parke Naturalaren inguruan dauden nekazaritza ustiapenen integrazio paisajistikoa aztertu da. Eta hau guztia zertarako? Tolomendin eman dizkigute argibide guztiak.

Leire Zubeldia

“Lan honetan egin dena, landa eremuan dauden lehenengo sektoreko eraikinek ingurunearekin duten integrazio maila aztertzea da”, hasi da azalpenarekin Iker Karrera Tolomendiko kidea. Aralarko Parke Naturalaren inguruan dauden hainbat nekazaritza ustiapen hartu dituzte adibidetzat: baserriak, ukuiluak, txabolak, belardiak, eta oro har eraikinen inguruak aztertu dira zer nolako egoerak ematen diren jakiteko. Azterketa praktikoa honetatik hainbat ondorio atera dituzte: “batetik, egungo eraikinek paisaia integrazio hobeago bat izan dezaten neurri zuzentzaile batzuk proposatu dira; bestetik, etorki-

zunean egin beharreko eraikinek integrazio paisajistiko egoki bat izateko zein baldintza bete behar dituzten zehaztu da”.

Lehen sektorearen garapena paisaia hondatu gabe

Material hau baserriarren eta udaletxeen eskura utzi du Tolomendik. “Batez ere, udaletxeei begira egin dugu”, dio Ikerrek, “udaletxeak dira obretarako baimena eta litzentziak ematen dituztenak. Guk, kontsultarako materiala izan dezaten egin dugu hau”. Orain arte integrazio paisajistikoari ez zaio garrantziarik eman, udal bakoitzak bere irizpideak erabili ditu baimenak ematerako garaian.

Baina material hau egiteko arrazoi pisutsuena irizpideak bateratuz haratago doa: “Azken urte hauetan lehenengo sektorearen aktibitate ekonomikoa garatu ahal izateko, batez ere ganaderitzako ustiakuntzan, halaberrez ukuilu berriak eraiki edo lehengoak zabaldu behar izan dira. Daurkagun topografia eta orografia kontutan hartuta eraikin hauek ingurunera egokitzea ez da erraza. Askotan emaitzak ez dira egokienak izaten, eta horren eraginez, ikusi dugu gizarteak eta hainbat udaletxe ukuilu berri bat egiteko eskaeraren aurrean kontrako jarrera erakusten dutela”. Tolomen-

dik ulertzen du ustiapen berri hauen baitan dagoela sektorearen garapena, eta euren iritziz, gizarteak paisaiarekiko duen ikuspegi erromantikoak ez luke hori oztopatu behar. "Baina aldi berean, lehenengo sektoreak kontutan hartu beharko du inguruneak gizartearentzat duen balioa, eta eraikin berri bat egiterako garaian, paisaia ahalik eta gutxien kaltetzea eta ingurunean integrazio egoki bat lortzea izan beharko litzuke helburu". Ekimenaren sustatzailen iritziz, posible da lehenengo sektoreak behar dituen eraikinak egitea ingurunean ongi txertatuz. "Azterketa honekin, ingurunearekiko desegokiak diren eraikin gehiago egitea

Mundu mailako irizpideak

Inguruko nekazaritza ustiapenen gaineko azterketa egiteko mundu mailan erabiltzen diren irizpideetan oinarritu da aditu taldea. "Azterketa ez dugu gure gustuen arabera egin", azpimarratu du Karrerak. Hiru eskala-mailatan egin dute azterketa: 1. eskala baserriaren ingurune zabalari dagokiona da; 2. eskalan baserria eta hau inguratzen duen eraikin multzoa dago; eta 3. eskala-mailan eraikinaren xehetasunak aztertzen dira.

Lehenengo eskala-mailan irizpideetako bat paisaiaren aberastasuna da. Hemen, baserria edo eraikina kokatzen den ingurunea aztertzen da.

gogorragoak bete beharko ditugu paisaian integrazteko. Azken batean, gune urbanoan eraikinak paisaiaren parte dira". Eraikinaren integrazioa baldintzatuko duen beste elementua "hauskortasuna" deiturikoa da. "Ikus-arroa deritzon eremuan, eraikina zenbat puntutatik ikusiko litzatekeen aztertzen da. Gero eta puntu gehiagotatik ikusi, orduan eta hauskortasun maila handiagoa izango du, eta beraz, neurri zorrotzagoak hartu beharko dira bere integrazioarako". Azkenik, eraikin horrek izango duen jarduera ere kontutan hartu behar da. Gerta liteke, daukan aktibitatearengatik baserri baten ingurura jende asko hurbiltzea; nekazal turismoak dira adibide, eta kasu hauetan, eraikinok eredu gisa funtzionatzen dute nahigabe. "Honi ikusgarritasuna deitzen diogu". Bailararen tipologiak ere eragingo du integrazioan. Bailara zabal batean errazagoa izango da eraikin bat disimulatzea haran itxi batean baino. "Guzti honetatik ondorio bat atera daiteke: eraikin bakoitzak bere kasuistika propioa du eta horren arabera neurriak exijitu behar zaizkio". Beraz, baldintza unibertsalik ez dago, kasu bakoitza aztertu behar da eta behar dituen baldintzak exijitu.

Bigarren eskalan aztertzen den lehenengo elementua eraikin multzoa da eta eraikin multzoaren hierarkia. "Hierarkia horretan garrantzitsuena baserria da. Bere inguruan eraikitzen diren ukuilu edota txabolek honen protagonismoa mantendu

eta ahal bada indartu behar dute. Horretarako distantziak eta teilatuen horientazioak zaindu behar dira". Hierarkia hau errespetatzen ez den adibide ugari daude; logikarik eta antolaketa gabe altxatzen joan diren eraikinak baserriari protagonismoa janez. "Alde horretatik, oso garrantzitsua da egin beharreko eraikuntzak modu planifikatu eta antolatuan egitea, eta ez modu inprobisatuan puskak erantsiz". Era berean, txukuntasuna pisu handiko faktorea da integrazioaz hitz egiten dugunean. Begi bistakoa da "badaezpada" traste ugari gorde eta pilatzen direla, inoiz erabilgarri gertatzen badira ere. "Bada, traste horiek ingurunean inpaktua sortzen ari dira; gainera, askotan eraikinaren detaile desegokiek baino pisu gehiago izaten dute ingurunean". Alderdi honetatik, kultura aldaketa bat ematea beharrezkotzat jotzen dute azterketaren egileek. Baserri inguruari gagozkiolarik, ukuiluetako jarduerak erosoago burutzeko eraikin inguruaren zoladura egin ohi da. Kasu honetan, ormigoitutako edo asfaltatutako zonaldeak behar adinakoak izan daitezela gomendatzen dute, gune berdeak utziz. Instalazio berriren bat jarri beharko balitz, tolbaren bat esaterako, hauen ezaugarriak errespetatzea eta dauden bezala jartzea da zuzenena. "Instalazio hauek tamaina handia izaten dute, eta paisaian deigarriak suertatzen diren koloreak dituzte. Ezin dira disimulatu, eta horretan saiatuz gero oke-



Etxebizitza nagusia ukuiluaren eraikinean integratuta. Egin behar ez denaren adibidea.

eta aldi beren hainbat udalek baserriarrei jartzen dizkieten baldintza zorrotzegiak, eta irizpide faltagatik maiz desegokiak izaten direnak ekidin nahi ditugu". Material hau Tolosaldeko udaletxe guztietan daukate dagoeneko. Aipatu bezala, batzuk kontsultarako material bezala erabiliko dute, beste batzuk araudian txertatuko dute.

"Inguruneak zenbat eta elementu gehiago eduki (basoak, itxiturak, forma irregularrak...) orduan eta aberatsagoa da. Eraikin batek, ingurune aberats batean askoz ere inpaktu gutxiago eragiten du biluzik dagoen ingurune batean baino". Ikus-arroaren landartasun maila da beste irizpide bat: "ukuilu berrira eraiki behar den ingurunea guztiz rural-a bada baldintza



Galtzaundi 324
10eko maiatzak 21

rrogo geratzen dira". Itxiturei dagokienez, lehendik dauden harrizko paretak errespetatu beharko lirateke ahal den neurrian. "Kasu batzuetan ez da posible izaten, bide bazterrean daudelako eta bidea zabaldu behar delako, edo nekazariari belardien maneja oztzatzen diolako". Horregatik baserritarrek estaka eta alanbre-sarez egindako itxiturek nahiago dituzte, baina harrizkoek inpaktu gutxiago eragiten dute. Bideak dira zaindu beharreko beste elementua: bideak txukun egin da ote dauden, eskoilerak, topografian zer nolako kokapena duten, zabalgunek... Denak eragiten du. "Aspaldi honetan baserri bideak zabaltzeko joera nagusitu da. Suitzan asko zaintzen dute paisaia; bertan bide osoa zabaldu beharrean bidean zabalgunek batzuk egiten dituzte autoak gurutzatzeko". Estrategia hori gomendatzen da. Materialari dagokionez, asfalto egokiagoa da ormigoia bai-

no, denborarekin asfaltoaren kolorea errazago difuminatzen baita. Azkenik, baserri ingurura sartzeko topatzen ditugun ataka edo hesiez hitz egin du lkerrek. "Langa hauek elementu urbanoak dira. Baserrietan inoiz ez da horrelakorik egon". Desegokiak dira beraz. Baserri inguruan erabiltzen den landaretza ere bertakoa izan dadila aholkatzen dute.

Eraikinaren detaileetan errepertatuz, "gaurkotasuna"ren irizpidea aipatu behar da lehenik. "XXI. mendean gaude; ez du zentzurik eraikinari garai bateko itxura eman nahi diogulako orduko material eta teknikak erabiltzea. Gaurko materialak eta teknikak onartu eta hobetsi behar dira inongo konplexurik gabe. Gainera, material hauek eraikinaren erabilerarekin bat etorri behar dira. Ikuiluetarako material arinak eta lehorrak (egurra, azeroa, material prefabrikatuak...) erabili behar dira, materialok gerora berrerabil-

garriak baitira". Bestalde, eraikinek ahalik eta abstrakzio mailarik handiena lortu behar dute ingurunean ahalik eta disimulatuena geratzeko. "Ukuilueta-ko ateeak eta leihoek urrundu egin behar dute itxura gizatiarretik. Izan daitezela ukuilu lanetarako egokiak, beharrezkoa den dimentsioa emanaz. Ukuiluko leihoek ezin dute etxe bateko leihoen tamaina berekoak izan", ohartarazi du. Honela, azkenaldian eraikin mota honetan nagusitzen ari den teknika, leihorik eza da: hots, pareta altuera bateraino egin eta gero irekigunea uztea leihoaren ordez.

Baldintza guzti hauek errespetatuz gero, etorkizunean egin beharreko ukuilu eta txabolek ez dute horrenbesteko inpakturik sortuko paisaian. Nekazari eta abeltzainek euren lana aurrera eramateko eraikinak izango dituzte, eta gizarteak paisaia eder bat izango du begien gozagarri. ☺

Ondorioak

Eraikita dauden ukuiluetan hartu beharreko neurriak

- Eraikinak eskoilerarik badu honen integrazioa-ko landareak erabiltzea.
- Ustiapenen inguruak trastez eta hondakinez garbi mantentzea.
- Desitxuragarriak diren eraikin txikiak konpondu edo botatzea.
- Eraikinak material arinez egin eta bete behar duten funtzioaren araberrako itxura ematea.
- Bideen kasuan, alboetako harresiak ahal bada kontserbatzea.
- Zelaietan harrizko itxiturek mantentzea.

- Justuko zoladura erabiltzea eta gune berdeak uztea

- Bertako landare espezieak erabiltzea

Etorkizuneko eraikinrentzako neurri prebentiboak

- Ustiapenerako eraikin bat egin aurretik ingurunearekiko integrazio maila neurtzeko azterketak egitea.
- Paisaiaren aberastasuna kontserbatzea.
- Aurretik dagoen topografia ahalik eta gehien errespetatzea

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA



Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGUROS
BILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin Eceizabarrena



Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Landa eremuko auzoetako 60 urtetik gorako pertsonen egoeraren
diagnosia egin eta prestazioak bideratu dituzte

Gizarte zerbitzuak landa e

Berpiztuz programaren bidez, hurrenez-hurren Bedaion, Aldaban, Aldaba Txikin, Urkizun eta Auzo Txikin egin ziren diagnosietan gizarte laguntzen behar handia ikusi zen. Berpiztuz programako sustatzaile diren Udala eta Tolomendik teknikari bat hartu dute landa auzoetan gizarte zerbitzuak eskaintzen dituen prestazioen gaineko informazioa zabaltzeko eta beharren diagnosi zehatza egiteko. Lan hori egin dago jada, eta zenbait zerbitzu eskaera ere bideratu dira.

Leire Zubeldia

Maiz esan izan da Tolosako landa eremuko auzoek urrun sentitzen dutela herriko udal-tertxea. Horren ondorioetako bat da auzoetan udaleko gizarte zerbitzuetako sailak eskaintzen dituen prestazioen berri ez izatea. "Berpiztuz programaren bidez, Tolosako landa eremuko bost auzo hauetan egin ziren diagnosietan gizarte zerbitzuen alorrean hutsune batzuk zeudela, informazioa ez zela iristen, jabetu ginen", azaldu zuen Olatz Peon, Tolosako

alkateorde eta auzoetako zinegotziak. Hutsune hori betetzeko jarri dute martxan gizarte zerbitzuak landa eremuko auzoetara hurbiltzeko ekintza plana. "Auzo bakoitzean hitzaldi bana antolatu genuen dauden prestazioei buruzko informazioa zabaltzeko; eta gero, 60 urtetik gorako pertsonaren bat bizi den etxe guztietara jo dugu bakoitzaren egoera berbaloratu, eskura dituen zerbitzuak aurkeztu eta beharra ikusi den kasuetan zerbitzuaren eskaera bideratzeko", jarraitu zuen Arrate Iturbe Berpiztuz programako teknikariak. "60 urtetik gorako biztanleen diagnosi egin dugu, hirugarren adinekoren kopuruak landa eremuko biztanleriaren %30a suposatzen duelako". Berpiztuz programaren helburua auzo hauetako bizi kalitatea hobetzea izanik, xede horren lorpen mailan eragiteko giza-talde garrantzitsua da adinduena. Cristina Traperok teknikaria aritu da etxetik-etxeko lanean. Sei hilabete eman ditu bisitak egiten eta guztira 91 galdeketa egin ditu. Gizarte zerbitzuen beharra handia dela baieztatu da.

Harrera bikaina eta eskertza

Cristina Traperok auzoetako biztanleek erakutsitako abegi ona eta eskertza bereziki azpimarratu nahi izan zituen. "Batetik, beraiek ez zuten gizarte zerbitzuetatik bideratzen di-

ren laguntzen berri. Gainera, uste dute laguntza horiek "pobreentzako" direla, eta beraiek ez dituztela behar. Nire lana gainontzeko tolosarrek bezala prestazio hauek jasotzeko eskubidea dutela ohartaraztea izan da. Bestalde, oso eskertuta agertu dira informazio hau ematera euren etxeraino joan izanagatik".

Adinduek, oro har hirugarren pertsona baten laguntza behar izaten badute, landa eremuan dependentzia maila hori areagotu egiten da; Cristina etxetik-etxetik egin dituen bisitetan bere begiekin ikusi ditu arrazoiak: "etxetik-etxetik barrera arkitektoniko asko dituzte landa eremuetan. Esaterako, baserri asko bi solairukoak dira eta eskailerak igo behar izaten dituzte. Etxetik ateratzeko bideak ere estuak eta malkartsuak dira. Honekin batera, zenbait baserri bati edo hiru belaunaldietako kideak bizi dira eta zaintzaren karga guztia emakumearengan erortzen da. Aldiz, nahiz eta seme alabak eduki, baserri bakarrak bizi diren adinduak ere badira: 16 bisitatu ditugu guztira. Horiek ez daukate garraiobiderik eta senitartekoen menpe egon behar dute herri-jaisteko".

Guztira egoeraren zazpi balorazio berri egin dira, eta beharrendaren arabera prestazio bat edo bestea eskatu da:

eremura hurbiltzen



13

Arrate Iturbe, Cristina Trapero eta Olatz Peon ekimenaren aurkezpenean.

“Gehienek etxez-etxeko laguntza zerbitzua eskatu dute. Bono-taxiak ere arrakasta izan du, bost bono-taxi eskaera egin direlarik. Beste kasu batzuetan laguntza teknikoa eman zaie: dutxan jartzeko aulkiak, heldulekuak...”. Ekimenaren arduradunek gerontologiko berriari buruzko jakin-mina nabarmendu dute. Batez ere eguneko zentruari buruzko informazioa da eskatu dutena.

Etorkizuneko beharretarako prestatzen

Egungo egoera konpontzeaz

gainera, diagnosi honek etorkizuneko beharrak aurreikusteko balio izan du. Sei hilabetetako lanak ondorio batzuk utzi ditu: “adindu dexente baserrian bakarrik bizi dira. Seme alabak dituzte, baina haiek euran lana eta euren familia daukate eta ezin dute 24 orduz aita edo ama zaintzen egon. Bakardade hori gainditzeko neurriak hartzen joan beharko dugu”.

Era berean, etorkizuneko laguntza teknikoaren behar handia egongo dela aurreikusten da, etxeen tipologia eta hauetatik sartu zein ir-

teeko dauden barrera arkitetnikoak direla eta “60 urterekin oraindik osasun egoera onean daude bizilagun gehienak, baina adinean aurrera egin ahala dependentzia gradua areagotuz joango da. Batez ere etxetik ateratzeko orduan ezinbestekoa izango dute hirugarren baten laguntza: bideak txarrak direlako edota garraiorik ez daukatelako. Familiak gero eta zama gehiago izango du beraz”. Gain-zama hori arindu eta adinduen zein beraien familien bizitza kalitatea ber-

Gehienek etxez-etxeko laguntza zerbitzua eskatu dute. Bono-taxiak ere arrakasta izan du

matzeko neurriak hartzen hasi beharko dute.

Aipatutako bost auzoetan bezala, Tolosako gainontzeko landa eremuko auzoetan ere ekimen bera jarri nahi dute martxan: Montesku, San Blas, Santa Luzia eta San Estebanen laster hasiko dira lanean.



Belauntzako ostatua iriki berri dute eta Leaburukoa martxan jartzeko bidean dago

Ostatua martxan, herria ere

Eskualdeko herri txiki askotan udaletxe azpian edo plaza inguruan kokatutako ostatura mugatzen da herritarrentzako aisia eta zerbitzua. Hori dela eta, ostatua itxita edukitzeak kalte handia egiten dio bertako bizitza kalitateari; baina maiz ez da erraza suertatzen biztanle gutxiko herrietan negozioa errentagarri egitea, eta maiztasun handiz aldatzen dira jabez. Egoera honetan dauden edo egon diren eskualdeko herriei erreparatu diegu ondoko erreportaian

Leire Zubeldia

Belauntzako herritarrak pozik jarri ziren goizean etxe-ko leihoak zabaldu eta eliza parean dagoen ostatuaren barrenean hotsak entzutean. Hilabete mordoxka bat itxita eman ondoren, eraberritze lanak egiten ari ziren, ostatua itxuraldatu eta ahal bezain agudo irekitzeko. Duela hilabete eskas izan ze hori. Juanma Jimenez-ek hartu du herriko taberna eta jatetxea kudeatzeko ardura. Kataluniarra da jaiotzez; bertan jaso zuen sukaldari izateko trebakuntza. Duela hiru urtetik Itsasondon bizi da. Bai bere herrian eta bai hemen urte askotako lan esperientzia pilatu du ostalaritzaren alorrean. Eskualdea ere ezagutzen du: "laz Leaburuko ostatuan aritu nintzen lanean. Hura itxi egin zen eta Belauntzako ostatua hartzeko pausoa ematea era-

baki nuen", azaldu du. Juanma sukaldeaz arduratuko da, eta jangelan zein tabernan Mari Jose ibiliko da, hau ere Leaburuko ostatuan aritutakoa.

Ireki aurretik aldaketa batzuk egin dituzte ostatu barruan: "gure erara jarri dugu. Pintatu, mahaiak beste modu batera jantzi... Jendea zerbait berriarekin topatzea nahi genuen". Hasieran errezeloz begiratzen bazaio ere, jendea hasi da ostatura hurbiltzen. Arduradunaren ustetan, "herritarrak gustura daude ostatua berriz ere martxan dagoelako, eta horrek gu ere poztu egiten gaitu".

Lanerako gogotsu daude jabe berriak. Asteazken, eguerdian eguneko menua eskaniko dute, eta afaldu nahi duenak ere izango du horretarako aukera; asteburuetarako berriz, menu berezia eta

e bai

kartako menu anitza daukate. Horretaz gain, ogitartekoak, plater konbinatuak, razioak eta ohiko alternatibak ere izango dira. Egutero egongo da zabalik goizeko 10:00etatik aurrera, asteazkenetan izan ezik; ongi egindako lanak atsedena merezi baitu.

Hernialden ere jabe berriak

Ostatuko telefono zenbakia markatu eta Moises-ek erantzun digu. Lurdes bere amarekin batera hartu zuen Hernialdeko ostatuaren kudeaketa. 2009ko azaro hasieran utzi zuten aurreko jabeek eta handik aste bete eskasera azaldu ziren ama-seeak. Donostiarrak dira, baina ostatuaren ardura hartzean Hernialden bertan jarri dira bizitzen. "Gustura gaude jendea hurbiltzen delako, batez ere asteburuetan", argitu du


Moises-ek. Egutero zabalitzen dute ostatua bazkari eta afariak emateko. "Denetik eskaintzen dugu: menua, plater konbinatuak, ogitartekoak, babarrun-jana...". Ez dago aukera faltarik.

Azpeitiatik Orexara

Langabezian geratu ondoren, Orexako ostatua hartzeko aukera zegoela jakin zuen Nereok eta birritan pentsatu gabe Azpeitiatik Orexarako bidea egin zuen duela lau hilabete inguru. Herriko jaiak pasa berritan taberna garbitzen harrapatu digu. "Oso gustura nago herrian. Harrera bikaina egin didate". Astean zehar bera bakarrik aritzen da lanean, eta asteburuetan familia etortzen zaio ostatuan laguntzera. "Astegunetan bazkaltzen ematen dugu. Ez dut menu jakin bat presta-

tzen jende gutxi hurbiltzen delako, baina beti egoten da zer aukeratu. Astebukaeratan bazkari eta afariak, ogitartekoak eta enkarguz eskatu gero arkume errea eskaintzen ditugu".

Leaburuko ostatua, berriro zabaltzeko bidean

Abendutik Leaburuko herritarrek ez daukate herrian lagun artean kafea non hartu. Bertakoentzat zein inguruko herrietako bizilagunentzat ohiko topagunea izan da Leaburuko ostatua; zerbait hartu, mokadutxo bat jan edota luxuz afaltzeko askok egiten zuten aukera zen itxi zuten arte. Gabezia jabetuta Udalak lehiaketa publikora atera zuen ostatuaren kudeaketa. Maiatzaren 15ean amaitu zen eskaerak aurkezteko epea. 



ZALBIDE

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egutero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176




SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoek erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA





Enrique Rubiños

“Berbenetan aritzeak izugarrizko eskarmentua ematen du”

Felix Aiestaran

Enrique Rubiños, tolosarra 1977an jaio zen eta Ibarra bizi da duela lau pabost urtetik. Aita teklatu eta akordeoilari modura berbena eta ezkontzetan ari zenez, bere arrastoa jarraiki musika ikasteari ekin zion Eduardo Mokoroa Musika Eskolan.

Ttikitatik bateria-jolea izan nahi zuen Enriquek eta musika eskolan bateria ikasgai bezala ez egon arren, hasiera batean, Jose Karrera izan zuen perkusio irakasle. Ondoren, Jesus Mari Garmendiarekin jarraitu zuen. Donostiako Kontserbatorioan gustura ez zela ari eta Baionakora egin zuen jauzi eta bertan burutu zituen Goi Mailako musika ikasketak. Bateria ikasketak bere kasa osatu zituen Akelarreko Paco Diazekin lehenik, eta azkenik David Barkos nafarrarekin. Gaur egun bateria irakasten dihardu Lekunberrin.

Hamabost urterekin ezkontzetan bateria jotzen hasi ondoren, Drindotsekin 1997tik 2005era berbenako jardueraz zailduta, Skalariak talde nafarrean aritzeko aukera izan zuen 2005ean eta bertatik sortu zen Vendetta taldean ari da, gaur egun, skarren bertsio indartsuenari ekinaz. Gustura ari dira zuzenekoak ematen eta diskoak izan duen harrera beroa aintzat hartuta, beste bat ateratzeko asmoa dute udazkenerako.

Zer dela eta aukeratu zenuen bateria?

Bateriak ttikitatik harrapatu egin ninduen. Perkusioa ikasten hastean mundu anitza aurkitu nuen. Ez da musika tresna bakarra jotzea bezalakoa. Perkusioan izugarritzko aukera dago. Europa mailan perkusioak beti izan du garrantzia, hemen ez da horrela izan. Txaranga batean musikariak egoten ziren eta bestetik elkarrekin jendea txapa eta bonboarekin aritzeko kultura egon izan da. Inauteriak ondo pasatzeko direnez, hori horrela izatea ongi iruditzen zait.

Nolakoa da bateria-jolearen eguneroko lana?

Maila ona lortu arte eskuak eta hankak banatuta alor teknikoa landu behar da eta gero estilo desberdinak ikasi behar dira. Maila mantentzearen, abiadura eta erresistentzia lantzeko ariketak egin behar dira. Gehiago ikasteko liburuak hartu eta segi egin behar da. Beti geratzen da zerbait ikasteko.

Bateria-joleek ongi isolatutako lekua beharko duzue entsaiatzeko, ezta?

Nik bateria elektronikoa daukat eta bizilagunak ez dute inolako zaratarik

entzuten. Soinua kaskoetara joaten da zuzenean. Musika eskolak ematen ditugun tokian ez dugu bizilagunik eta hantxe aritzen gara bateriarekin...

Zein ezaugarri izan behar ditu bateria-jole on batek?

Dena ikasi daiteke, baina erritmorako eta musika harmonizatzeke trebetasuna badu, ongi moldatuko da baterian. Ikasle batzuek berez ezagutzen dituzte musikan ari diren tresna desberdinak, besteekin landu egin beharra dago, hori. Eta gogoia izan behar da, gogo izugarria.

Ume asko ikasten du musika... Musikak bereganatu al du bere tokia, gaur egun?

Badu bere tokia, baina bada lana arlo horretan oraindik ere. Frantzian ikusi dudanez sistema erabat desberdina daukate. Bertan musika ikasi nahi baduzu, izugarritzko erraztasunak ematen dizkizute. Baionan umeak goizetik musika ikasten ikustean, nire buruari galdetzen nion ea ez al zuten eskolara joan beharrik... Bertan musika ikastea erabakitzen badu umeak, eskola ikasketak osagarri modura emateko aparteko aukera ematen diote ikasleari. Frantzian ez dute eskolako ordu guztiak bete eta gero eskola orduetatik kanpoko gai modura musika ematen.

Musikene eta hor egonik... musika gaitasuna duenak ba al ditu bitarteko egokiak aurrera egiteko hemen?

Musikenen ari direnak kexatu egiten dira, baina jakin behar lukete musika eskoletan ari garenon egoerarekin alderatuz, beraiek luxuzko baldintzetan ari direla. Musika Eskolak material gutxi eta ia tokirik gabe ari gara lanean. Beraiengana ikasleak



"Europa mailan perkusioak beti izan du garrantzia, hemen ez da horrela izan."

irits daitezten, musika eskolek, orain ez dituzten bitarteko egokiak izan behar dituzte.

Zer eman dizu bateriak?

Izugarritzko bizipen onak izan ditut. Hamabost urterekin aitak ezkontzetara eramaten ninduen eta nahikoa gogorra izaten zen, jendea berotuta egoten delako. Ondoren, berbenetan esperientzia aberasgarria izan nuen Drindotsekin, bost orduko saio luzeetan gogortuta. Eszenatikian egoteko edo soinu frogatan prestatzeko izugarritzko eskarmentua ematen du bernenetan aritzeak. Skalariaken hasi nintzenean, emanaldiak ordubete eta erdikoak izaten ziren eta berbena saioetan ohituta, ez zegoen erresistentzia probarik eta motzak egiten zitzaizkidan. Bernenetan aritzeak osasun pixka

bat ere kenduko zidan...(Barre egiten du)

Nola hartu zenuen lurra Skalariak-en?

Bi urte eta erdiz aritu nintzen Skalariak-en, 2005ean hasita. Juanma Urriza Skalariakeko bateria ezaguna nuen eta berak uzteko asmoa zuela esan zidanean, nik berbenak alde batera uzteko gogoa nuela-eta, adierazi nion prest nengoela bertan hasteko. Proba egin zidaten, gustatu zitzaizen eta hartu egin ninduten.

Ezberdina da berbena talde baten eta Skalariak bezalako talde batean aritzea?

Bai. Skalariak-en tablak eginda daukate. Taularitzen zara eta dena prest duzu. Montadore bat dago, eseri eta jo besterik ez da egin behar. Beste mundu bat



“Musika eskolek, orain ez dituzten bitarteko egokiak izan behar dituzte.”

da. Alde horretatik lana izugarri ttikiagutzen da. Baina bestetik kilometro pila bat egin beharra dago, estatu, Europa eta Amerikan zehar. Etxe inguruko bizitza murriztu egiten du.

Nolako bizipenak izan dituzu talde nafarran?

Ska ez nuen asko ezagutzen. Ni makarragoa naiz. Ska jotzea oso dibertigarria da, erritmo aberatsak ditu eta mila ska mota daude. Skalariak, ska klasikotik aldenduaz, fusionatzen saiatzen zen. Katalunian purista asko dago eta gure fusionatze-ko joera kritikatu egiten zuten.

Zein izan zen saiorik gogoangarriena?

Lehendik ere egonda zeuden Skalariak bertan eta Mexiko DF-ko El Rayo izeneko aretoan bost mila lagun bero-bero eginda gure zain zeuden. Arratsaldeko ordu-bietan hasita, aurretik zortzi talde sartzen dituzte; asko luzatzen da eta pazientziarik ez dutenez izaten aurreko taldeak eszenatokitik jaitsi egiten

dituzte. Jotzen hasi ginenean, gure musika baino jendeak kantatzen zuena besterik ez zen entzuten. Izugarrizko zarata atera zuten. Oso beroak dira. Viña Rocken ere jende pila baten aurrean jo genuen...

Nola sortu zen Vendetta?

Skalariak taldeak bi urteko geldialdia egitea erabaki zuen, baina dagoeneko lau urte egin ditu geldirik. Lau lagunon artean ondo moldatzen gara. Gitarra bazituen kanta batzuk eta Iruñeako peñek egindako diskorako bildu ginen lehen aldiz. Irrintzi peñari egin genion bertsioa. Jarraipena ematea erabaki genuen. Kantak osatu ziren eta Gor etxearen eskutik diskoa ateratzea erabaki genuen. Gor Nafarroan egoteak, bertan horrenbeste talde aurrera ateratzea ahalbideratzen du.

Vendettak mendeku esan nahi du italieraz. Zergatik izan hau?

Vendetta hitzaren soinua gustatu zitzaigun. Italian skarekin pixka bat erotuta daude.

Italian jotzea oso gustukoa dugu, baina bertan zuzeneko kontzertuetan ez da jenderik biltzen. Ia-ia kontzerturik ez dela egiten esan ziguten, jende faltagatik.

Nola definituko zenuke zuen musika?

Ska musika jotzen dugu, punka eta rockarekin nahastu eta ukitu latinoaz osatuta. Gure musika, festa egiteko musika da. Kantak beti juerga egiteko pentsatzen ditugu, beti ere mezuari tokia emanaz.

Zein bilakaera izan du Vendettak Skalariaketik?

Vendetta Vendetta da eta Skalariak beste zerbait da. Oraindik, emanaldietako kartel batzuetan, Skalariak ohi modura aurkezten gaituzte. Vendettaren musika Skalariakena baino pixka bat gogorxeagoa da.

Bonberenean etxean bezala sentitu zineten, ezta?

Bai, ezustekoa izan zen guretzat. Kristoren giroa sortu zen eta badut gogo berrero itzultzeko. Agian, bigarren diskoa aurkezteko etorriko gara.

Nolako harrera izan du diskoak?

Diskoak harrera ona izan du, joaten garen tokietan jendeak kantuak ezagutzen baititu. Kritika onak izan ditu eta jendeari gustatu zaio. Oso gustura gaudela emaitzarekin. Soinu oso gordina da: efektu berezirik gabekoa. Kolaboratzaile askok parte hartu zuten.

Non izan dituzue emanaldiak?

Iaz, berrogei kontzertu izan genituen: estatu mailan, Suitzatan gira ttiki bat egin eta Euskal Herrian aritu ginen. Nafarroan bereziki eta Tolosaldean harrera beroa izan dugu, baina



Munster Tour gira barruan udan egingo ditugun emanaldiak lotzen ari gara. Euskal Herrian eta Katalunian dexente ditugu hitz emanda. Bestetik, kontzertuez gain, bigarren diskoa, presarik gabe, urrirako prestatzeko asmoa dugu



batez ere Katalunian oso gustura hartu gaituzte, gaztetxoek ska zaletasun izugarria baitute. Nafarroa Oinezen ez genuen oso ongi jo, baina jendetzaren aurrean oso gustura aritu ginen.

Badituzue zenbait kanta euskaraz... Ba al duzue asmorik gehiago egiteko?

Kanta gehienak abesten dituenak ez daki euskaraz, eta ez da eroso sentitzen. Tronbonistak badaki eta lasai aritzen da. Baina berak kantatu behar badu metal bat galtzen dugu... Bost lagun gara eta musika aldetik asko galtzen da. Badira euskara hutsean ari diren taldeak nazioartean arrakasta lortu dutenak lan eta lan eginaz, hor dago Berri Txarrak-en adibidea.

Zein egitasmo dituzue esku artean?

Munster Tour gira barruan udan egingo ditugun emanaldiak lotzen ari gara. Euskal Herrian eta Katalunian dexente ditugu hitz emanda. Bestetik, kontzertuez gain, bigarren diskoa, presarik gabe, urrirako prestatzeko asmoa dugu. Diskoan sartuko ditugun kantak aurretik egingo ditugun zuzenekoetan funtzionatzen duten edo ez probatzea gustatuko litzazuke.

Irakurlearen begietatik



Jone Gorostarzu
Irakurlea

Altxa, esklabu izateari uko egiten diozuenok! Gure haragiz eta gure odolez, Harresi handi berri bat eraikiko dugu! Txinako nazioak aurrez aurre du arriskuaren eguna. Suminez dituzte bihotzak gure aberkideek...

Philip Roth, Suminez

Itzulpena: Nagore Tolosa

19

Txinako himno nazionala kantatzen du Marcus judutar estatubatuar gazteak, eta indarrez ahoskatzen du, batez ere, su-mi-nez hitza. Winesburg, ustez unibertsitate ez konfesionaleko Kristoren inguruko sermoiek sorrarazten dioten ezinegonari aurre egin ahal izateko abesten du amorruez, berekiko. Bigarren Mundu Gerran aliatu izan zuten Amerikar Estatu Batuek Txina, eta horregatik ikasi zuen abestia ume zelarik, eskolan.

Orain, baina, 1951. urtean gaude, Koreako gerra bete betean dago, eta txinatarrak dagoeneko aliatu ez, mehatxu dira Marcus eta honen moduko milaka gazte estatubatuarren-tzat. Beldur dira gerrara deituak izanez gero haien baionetek lepoa moztu eta Koreako edozein lubakitan hilotz amaituko ote duten. Hori sahiesteko, beraz, Marcus hutsik ez egiten

saiatzen da. Ikasle fina, langilea eta arrazoiduna izan nahi du, bikainak baino ateratzen ez dituen. Hasiera batean etxe ondoko New Treat unibertsitatean hasiko da Zuzenbidea ikasten. Bat-batean, baina, bere aita, ordura arte ongi eramaten zen kosher harakina, beldur zoro batek hartuko du; ezingo du burutik kendu bere seme bakarrari zerbait txarra gertatzeko aukera, eta hori sahiestu asmoz etengabe kontrolatuko du. Semea azkenean itota sentituko da eta etxetik 800 kilometrotara dagoen Winesburgeko unibertsitatera joango da bikainak ateratzen jarraitu asmoz.

Winesburgen, ordea, ez zaio hain erraza gertatuko dena ongi egite hori. Gelakideekin liskarrik izan eta bi aldiz gelaz aldatu beharko du. Gertaera honek errektorearekin istiluak ekarriko dizkio, eta eztabaida horietako batean bere amorrua ezin ezku-

taturik Marcusek auzian jarriko ditu unibertsitateko arau zorrotz eta konbentzionalak. Txikitari, aitarekin oilaskoei erraiak ateratzerakoan, ikasi zuen "egin behar dena egiten duzu" lezioa, baina ezingo du onartu graduatu ahal izateko berrogehi aldiz kaperara joatea. Horrez gain, bere ustez komeni ez zaion neska batekin maiteminduko da, eta burua eta bihotzaren arteko borroka gehituko zaio munduaren aurkakoari. Azkenean, baina, sarri "norberak egiten dituen hautu hutsal, halabeharrezko eta usu komikoek ondorio larregarrienak izaten dituztela" ohar-tuko da, bere zoritxarrerako.

Gertareak zein egoerak kontatzeko modu errealaengatik zein istorian zehar sakon gertatzen diren pertsonaiei esker irakurlea berehala sartuko da historia, eta horrela Marcusen beldur, kontraesan zein amorrua ezagutuko ditu.

Philip Roth gaur egungo idazle ipar amerikar ezagunetako da, eta sari ugari eskuratu ditu, hala nola 1997ko Pulitzer Saria edota 1998ko Arteen Domina Nazionala, beste askoren artean. Liburu hau bere hogeita bederatzigarrena den arren euskaraz irakur dezakegun lehena da Nagore Tolosaren itzulpenari esker. Gozagarri suertatzeaz gain pizgarri izan zait liburu hau idazle honen lana gehiago ezagutzeko.

“Zoaz infernura laztana” Andu Lertxundiren liburua irakurri ondoren, irakule taldeko kideek maiatzaren 6an egin zuten lehenengo tertulia. Zazpikote bat elkartu zen Tolosako Kultur Etxean.

Pasta gozo batzuen laguntzaz liburuari buruzko iritzi eta sentazioak partekatu zituzten giro intimo batean. Amaieran hurrengo hilabeterako irakurri beharreko liburua aukeratu zuten: “Nora ez dakizun hori”, eleberria. Ekainaren 3an arratsaldeko 19:30ean bilduko dira Irati Jimenez-en lanaz hitz egiteko, gainera egilea bera ere bertan izango da.

Leire Zubeldia

Maiatzaren 6an egin zuten lehenengo tertulia; hurrengoa ekainaren 3an izango da Irati Jimenez idazlea bertan dela.

Abian da Tolosa

Euskaraz idatzitako liburu bat aukeratu, hilabeteko epean hura lasai irakurri eta kideekin lanari buruzko iritzi eta sentazioak partekatu. Hori da irakurle taldearen funtzionamendua; sinplea baina aberasgarria. Euskal Herriko herri askotan sortu dira irakurle taldeak. Galtzaundi Euskara Taldeak irakurzaletasuna konpartitzeko txoko baten beharra ikusten zuen Tolosan. Hutsune hori betetzeko helburuz mamitu zuen irakurle taldearen ideia eta martxoa amaieran bilera informatibo baterako deialdia egin zuen. Bilera hartan irakurle taldean parte hartzeko prest zegoen taldetxo bat bildu zen. Gerora, hitzordura azaldu ezin izan zuten lagun gehiago ere hurbildu ziren Galtzaundira ekimenarekin interesaturik. Ideiak izandako erantzun ona ikusita aurrera egitea erabaki zen: zein liburua irakurriko

zuten adostu eta lehenengo tertuliaren eguna jarri zuten. Abian zen beraz Tolosako Irakurle Taldea.

Kuriositatearen harrarekin, tertuliak nolakoak izango ote ziren imaginatuz hurbildu ziren irakurleak lehenengo hitzordura. Kultur Etxeko lehenengo solairuko gela txiki bat hartu zen tertuliarako. Euria ari zuen kanpoan: eguraldi bikaina beraz aterpean liburu baten abaroan bildu eta goxo-goxo hitzaspertuan aritzeko. Zazpikote bat elkartu zen. Gehienek zekarten besapean irakurritako eleberria: “Zoaz infernura laztana”. Borobilean jarri, pasta kaxa bat atera eta bakoitzak bere iritzia emanez hasi ziren pikanaka. Azkar igaro ziren hiru ordu laurden. Amaitu aurretik hurrengo hitzordurako irakurri beharreko liburua aukeratu zuten. Galtzaundiko kideek botatako proposamena onartu

Ekaineko tertulia

Eguna: ekainak 3

Ordua: 19:30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea (1. solairua)

Irakurri beharreko liburua:
"Nora ez dakizun hori"

Irati Jimenez. Elkar argitaletxea.

Oharra: Irati Jimenez bera bertan izango da irakurleen galderak erantzuteko.

ako irakurle taldea

zuten taldeko kideek. Tertulian zeuden unean bertan Beterriko Liburua Aipamen Berezia jasozten ari zen Irati Jimenez mundakarraren azken eleberria irakurriko zuten: "Nora ez dakizun hori". Gainera, Irati Jimenez bera gonbidatzeko ideia ere atera zen. Hitzordua zehazteko geratu zelarik agurtu ziren irakurleak. Geroago, Galtzaundiko teknikaria idazle mundakarrarekin harremanetan jarri zen, eta ekainaren 3an jarri zuten eguna. 19:30ean bilduko dira Tolosako Kultur etxean.

Baldintza bakarra, euskaraz irakurtzeko gogoia

Irakurle taldeak bi funtzio nagusi betetzen ditu: batetik, euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez dutenak euskal literaturara hurbilaztea; bestetik, euskaraz irakurtzea gustuko dutenei euren zaletasuna konpartitzeko lagun talde bat eskaintzea.

Eta noski, guzti honek hirugarren helburu bat ere badakar: euskaraz idazten den literatura zabaldu eta hauspotzea.

Galtzaundik argi utzi nahi du irakurle taldea ez dela aditu talde bat. Edonork har dezake parte; baldintza bakarra euskaraz irakurtzeko gogoia izatea da. Ez da izen emate edo halako tramitaziorik egin behar. Era berean irakurle taldean parte hartzeko ez da asistentzia minimorik eskatzen. Nahi denean (edo ahal denean) azaldu zaitzekete tertulietara. Aurreko bilkuretan ez naizela izan? Inoiz ez da berandu hasteko. Idazle bat datorrela eta soilik tertulia horretan parte hartu nahi dudala? Aurrera, atek zabalik egongo dira. Hori bai, tertulian parte hartzeko gomendagarria da ardatz izango den liburua irakurritzea.

Irakurle taldea hilabetean behin bilduko da. Oraingoz

hilabete lehenengo ostegunean arratsaldeko 19:30ean. Hasi besterik ez gara egin eta dagoeneko hemen dugu udarako oporraldia. Uztaila eta abuztuan ez da bilkurarik egingo, baina irailean indarberrituri itzuliko gara udan irakurritako liburuez hitz egiteko.

Tertuliei buruzko informazioa

Galtzaundi aldizkarian alero-alero aterako da irakurle taldeari buruzko informazioa. Normalizazio atalean goian agertzen den post-it modukoa aurkitu beharko duzue, eta bertan zehaztuko da hurrengo tertuliari buruz jakin beharreko guztia: eguna, ordua, lekua eta irakurri beharreko liburua. Gehiago jakin nahi izanez gero, Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzatik pasa zaitzekete, edota 943.65.50.04 telefonora deitu.

**ALDATZ
Kristaldegia**

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispi luak
Beirate artistikoak
Dutxa-itxurak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak
Kotxe-aseguruak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-aseguruak
Denda-aseguruak
Erreirioak
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informazioa Zerbitzuak

Ordenagailuak eta konputerrak
Egitea eta jarduera-entzako
Martxan jarraitzea

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Mendi martxen denboraldiaren erdi parean gaude. Dagoeneko zenbait ibilaldi neurtu egin dira: maiatzaren 9an esaterako Berastegiko XVIII mendi ibilaldi neurtua eta Erniopeko zortzi herrien arteko VII. Mendi ibilaldia arrakasta handiz egin ziren. Izan dira eta izango dira gehiago ere. Datozen asteetan mendiari lotutako hiru ekintza egingo dira eskualdean. Horietako bat lehenengo aldiz egingo da gainera: Txindoki Bertikala Mendiko Lasterketa

Leire Zubeldia



lazko Bedaioko mendi martxako irudiak. Iturria: bedai.com

Mendiari lotuta

Ez da harrizkoa Tolosaldea horrenbeste mendi martxen antolatzaile izatea. Bi osagaiak ditugu: mendiak eta mendizaletasuna. Mendi ibilaldien denboraldia Berastegiko Martxa Neurtua eta Erniopeko Mendi Ibiladiarekin hasi dugu aurten; ondoren, Txirrita Mendi Martxa dator; jarraian Bedaioko Mendi eta BTT ibilaldia iritsiko da; eta aurten estreinekoz Euskal Herriko Mendi Lasterketa Bertikalen Kopan puntuagarria izango den mendi lasterketa bat izango dugu eskualdean: Txindoki Bertikala. Pixka bat aurrerago, uztailearen 16an, Ehunmilak, Gipuzkoako tontorrik garaienak zapalduko dituen ultralasterketa Tolosatik pasako da. Mendiari lotuta emango ditugu beraz hurrengo asteak. Zaletuentzat mendi martxen gaineko informazio bildu nahi izan du Gal-tzaundik.

Maiatzak 23, Txirrita Mendi Martxa

Tolosako Oargi Mendi Elkar-teak antolatutako martxak VII. aldia du aurtengoa. Aralarko mendi gailurretan egiten da mendi martxa hau. Amezketan ditu irteera eta helmuga. 13 km

-ko ibilaldia da eta 1.400 metrokoa da desnibelik handiena.

Euskal Herriko iraupen luze-ko ibiltarien zirkuitua sortu zenetik, Aralarren barrena egiten den martxa bertan puntuatzeko baliogarria izan da. Mendizaletasunaren gorakada ederki islatzen du Txirritak. Lehenengo urteetan 200 pertsona inguru ateratzen ziren. Pixkanaka kopurua igotzen joan da eta azken edizioetan 400 laguneko parte hartzea lortu du. Aurten 500era igo dute parte hartze muga. Izen ematea egiteko argibide guztiak www.oargi.org atarian dituzue. Parte hartzaileak goizeko 06:00etan irtengo dira Amezketako San Martin auzotik maiatzaren 23an.

Ekainak 20, Bedaioko mendi eta BTT Martxa

Bedaio eta bere ingurua ezagutzeko helburuz antolatu zuten Artubi Elkarteko kideek duela lau urte Bedaioko Mendi eta BTT Martxa. Inguruko mendizaleentzat prestatutako ekimen moduan planteatu bazuten ere, Gpuzkoa osoko parte hartzaileak biltzen ditu. Gutxi gorabehera 120 mendizale eta 40 txirrintulari izaten dira ir-

teera puntuan, eta aurtengoan kopuru hori gainditzea espero dute.

6-7 ordu inguruko mendi martxa da. Tolosako mendirik garaiena, Artubi (1.244 m) igotzen dute ibiltariak. Aurretik, Larrondotik pasatzen dira eta Artubitik behera egitean, Urdilleko lepoa zeharkatzen dute Azkarate herriraino jaitsiz. Paraje ederrez gozatzeko moduan izango dira mendizaleak eta bizikleta zaleak ere. BTTko ibilaldia berdina da, nahiz eta azken hauek Artubiraino igotzerik izango ez duten. Denda den, bizikletak utzi eta tontorrera artekoa oinez eginez, Mendi Duathloia egiteko aukera ere hor dago. Amaieran hamaiketako eta hainbat sariren zozketa egiten da, goiza borobiltzeko.


Izen ematea egunean bertan egin daiteke, baina antolatzaileek aldeztu aurretik egiteko aholkua luzatu dute. www.bedaio.com web orrian, mendimartxa@bedaio.com helbide elektronikoan edo 620.199.166 telefonoan eman daiteke izena. Ibiltariak goizeko 07:30ean irtengo dira Bedaioko frontoitik, eta txirridulariak 08:30ean.



Ekainak 19, Txindoki Bertikala Mendiko Lasterketa

Mendi Lasterketen zale direnak ekainak 19 noiz iritsiko zain daude. Egun horretan jokatu da lehenengo aldiz Txindoki Bertikala Mendiko Lasterketa. 3.878 metroko distantzian 931 metroko desnibela gainditu beharko dute parte hatazaileak. Altuerarik garaiena 1.346 metrokoa da, eta baxuena 415ekoa. Lehen lasterkaria goizeko 10:00etan irtengo da Larraitz-ko langatik eta 30 segunduko tartearrekin jarraituko dio hurrengoak. Antolatzaileek, probak erditik aurrera izango duen gogortasuna azpimarratu nahi izan dute, distantzia motzean desnibel handia gainditu beharko dutelako. Igoera Bertikalen Euskal Kopan puntuagarria izango da lasterketa hau.

Abaltzisketako Udalaren laguntzaz hainbat mendizaleen ekimenez antolatu da lasterketa. Aspaldian Txindoki apusturako lekua izan dela eta, grina handia sortu da mendi honekiko. Gogo horretatik abiatuta erabaki zuten Txindoki Bertikala lasterketa antolatzea. Gainera, Txindokik sona handia du Gipuzkoako eta oro har Euskal Herriko mendizaleen artean. Horregatik, arrakasta izango duela uste dute antolatzaileak. Izen ematea ekainaren 4ra arte dago zabalik. Informazio guztia www.abaltzisketa.net atarian duzue.




Juan Larrazpu eraikuntzak, s.l.

• Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esirukturetan adituak.

• Etxeen berrikuntzak:
- Fatxadak - Teilatua - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)

23



Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com

irakurri entzun Ikusi

Erdigune literarioak irakaskuntzan

Idurre Alonso

Idurre Alonsok, iaz aurkeztu zuen tesia, eta azken horretan oinarritutako lana da Erdigune literarioak irakaskuntzan liburua, zeinak irakaskuntzan euskal literatura nola jorratzen den aztertzea baitu helburu. Eskolan, euskal literaturaren irakaskuntzan, curriculum legeek zehazten dituzten helburuak betetzen ez direla ondorioztatzen du ikerketak, eta, beraz, akuilu ona izan daiteke euskal literaturaren irakaskuntza errotik birplanteatzeko.

New Moon

Elliott Smith

Elliott Smith kantautore folk estatubatuarra zen; folk-punk ere deitu izan zaio bere musika estiloari. New Moon hilondoko diskoa da, 2007an kaleratu zena. 1994 eta 1997ren artean grabatu eta argitaratu gabeko bitxikeriak jasotzen dira bertan; bere ahots bereziarekin 24 abesti eder xuxurlatzen dizkigu.

Alicia en el país de las maravillas

Tim Burton

Aliciak 19 urte ditu. Bertan jarraitzen dute Lewis Carroll-ek sortutako pertsonaia guztiak. Baina azpimunduan gauza asko aldatu dira Alicia azken aldiz bertan izan zenetik. Erronbo gorriko erregina gaiztoaren menpe dago herrialdea eta Aliciak herria mandatari gaiztoaren atzaparretatik askatzeko erronka gainditu beharko du. Baina ia ez da umea, erabakiak hartzeko libre da. Ez du zertan besteek esandakoa egin beharrik. Film zoragarria da, Carrollen pertsonaia bezalakoa, Aliciaren herrialdea bezalakoa.

Maiatzaren 21etik ekainaren 4ra arteko hitzordduak

Erakusketa

Aranburu jauregia

- Ekainaren 12ra: Nisa Goibururen "Y aun asi, somos naturales" erakusketa.

- Ekainaren 12ra arte: Adolfo Tannenbalum-en argazki erakusketa.

GKO Gallery

- Ekainaren 13ra: "Carnet de boyage buelta de Chile" erakusketa



TOPIC

- Maiatza amaierara arte: Txinako Txotxongiloetako pertsonaia tradizionalak.

Ikuskizunak

TOPIC

- Maiatzak 21: "Euskarazetamol" Ez dok Hiru bikoteatroaren antzezlan 20:30ean.

- Maiatzak 23: "Piedra a piedra" txotxongilo emanaldia 12:30ean.

rrindulari eskolak antolatutako (junior mailakoak).

Musika

TOPIC

- Maiatzak 28: "10 tanta" Alos quartet taldearen kontzertua, 20:30ean.

Bonberenea

- Maiatzak 22 larunbata. Cohen eta TBA. 22.30h.

- Maiatzak 28 ostirala. Estankona eta Kuntur Lee. 22.30h.

- Maiatzak 29 larunbata. R eta Humus. 22.30h.



- Maiatzak 30 igandea. Aintzina. 19.00h.

Maiatzak 29, kuadrilen eguna -12:00: Kuadrilen eguneko txupinazoa eta kalejira.

-14:00: Kuadrilen bazkaria frontoian.

-16:30: Kuadrilen arteko jokuak plazan.

-18:30: Kuadrilen poteoa talde sorpresarekin

-21:00: Kuadrilen afaria frontoian.

-23:30: Erromeria bide batez taldearekin plazan.

Maiatzak 30, dantzari txiki eguna -10:00etatik aurrera, goiz osoa, baseritarren azoka plazan, anoetako aht gelditu! Elkarlanak antolatutako. Talogileak eta dultzaineroak egongo dira.

-10:30: Alegia, ibarra, irura, lezo, villabona eta anoetako dantza taldeen kalejira.

-12:00: Dantza taldeen emanaldia plaza txikian.

-18:30: Oskorri musika taldearen the pub ibiltariaren emanaldia plazan, enpresa hauen eskutik: grupo eibar, irovisa, calcosa, eta anoeta karrozeriak. Loatzo musika eskolak parte hartuko du emanaldian.

Ekainak 2

-18:55: Herriko txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko duten plazan.

Maiatzak 22

09:30: Txirindulari lasterke-ta, mikel oiarzabal eta andoni urkolaren omenez, oriako txi-



Galtzaundi 324
10eko maiatzak 21

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Esualdeko ikaskuntzarekin erlazioz atutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Saskibaloia teknifikaziorako jardunaldiak	2010/05/23	2
Skype, sare sozialak, flickr	2010/05/27	12
Internet + e-administrazioa ikastaroa	2010/05/31	20
Hiri-barazkigintza: baratzeak balkoietan	2010/06/01	15
Argazki eta bideo muntaia (Movie Maker)	2010/06/01	10

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA Posta-e: info@ikastn.com
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa Webgunea: www.ikastn.com



-19:00: Herriko plazan jaien hasiera: txupinazioa, kukuaren jaitsiera kanpai hotsekin eta ume eta gaztetxoan danborrada, "lagunak" txarangarekin.

-Ondoren, loatzo musika eskolako trikitilarien kalejira

-19:30: Sardina jatea plazan, kuku elkarteak antolatutarik.

-23:00: Erromeria irune eta itsaso trikitilarietara.

Albztur-ko maiatza kulturala

- Maiatzak 28: Senda belarrei buruzko hitzaldia, 18:00etan Kultur Etxeko areto nagusian.

- Ekainak 5: Adinekoentzako irteera Iruñeara.

Ilargi Coupe

- Ekainaren 7tik 13ra: munduko jaki eta edari ezberdinak dastatzeko eta gastronomia ezberdinen berri izateko aukera Zerkausian.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 21

Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Larunbata, 22

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Igandea, 23

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Astelehena, 24

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Asteartea, 25

Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Asteazkena, 26

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Osteguna, 27

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Ostirala, 28

Ugarte M^aT.
(Euskal Herria, 46)
Ibarra

Larunbata, 29

Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Igandea, 30

Olarreaga J.
(Korroo kalea, 2)
Tolosa

Astelehena, 31

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Asteartea, 1

Olarreaga J.
(Korroo kalea, 2)
Tolosa

Asteazkena, 2

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Osteguna, 3

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Ostirala, 4

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika (Iarrialdiak)	943 675 799
Medikua	San Kosme San Damian geriatrikoa	943 675 932
Anoeta-Alkiza-Hernalde	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Baliarrain	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Medikua	Urreamendi egoitza	943 670 325
Berastegi-Elduain	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Medikua	DYA	943 672 536
Bidegoian	Gurutze Gorria	943 674 888
Medikua		943 651 425
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	Ertzantza	943 673 022
Osasun etxea	Tolosa Gasa	943 675 320
Ikaztegieta	Lizartza	
Medikua	Medikua	943 682 077
Irua	Orendain	
Osasun zentroa	Medikua	943 655 595
Tolosa		
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	943 682 228
San Esteban, hitzordua	Medikua	



SANTA
LUZIA
GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA



Vicente
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irua ■ Faxe. 943 694291
rotulosvicente@Jel.es



- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886 - 943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615 - 943 671 149

Muxutruk

lana

- Ordenagailuak konpondu eta eguneratu ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621
- Ingelesko klaseak ematen dira, barka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.160.268

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536
- 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egon-gela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843
- "Orion pisu/apartamentua salgai, garaie eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125"
- Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitzua eta bista onak. 685.765.855

Salgai

- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

Horoskopoa

Maiatzaren 21etik ekainaren 4ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Gogaitu egingo zaitu nahi zenuen hori ez lortzeak. Dena ez dago zure esku, eta alor horretan ezin duzu ezer egin. Onartzea da frustrazio egoeratik irteteko modu bakarra. Zozketaren batean zortedun izango zara.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Estresaturik ibiliko zara laneko kontuengatik. Umore txarra etxera ekarriko duzu zurekin eta giroa gaiztotu daiteke. Eskerrak bereziki ulerkor egongo dela. Zorionez bolada txar batean geratuko da dena.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Sintoma arraroak sentituko dituzu, aurretik inoiz ez bizitakoak. Kezka eragingo dizu eta kezka sintoma horiek areagotzea. Medikura joan zaitezke, baina dena zure urduritasunaren fruitua da. Kiriok dantzan dituzu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Eskibatzen ari zaizun sentsazioa izango duzu. Beldurra emango dizu galdetzea guztiaren amaiera izan daitekeela pentsatuz. Galdetu, ez da horrenbestera, gaizkiurlertu bat besterik ez.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Inguruko pertson bat ez da zintzo jokatzeko ari zurekin. Kalte egin diezazuke. Zu saia zaitez esandakoaren eta egindakoaren arteko koherentzia mantentzen eta salbu aterako zara. Ezusteko bisita bat izango duzu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Sentibera eta animoz baxu antzean ibiliko zara gainera datorkizun lan esker-gaigatik. Gainera ez dituzu eskutako mimo guztiak jasoko. Eutsi egin beharko diozu. Egindako lanak izango du saria.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Ondo moldatuko zarela pentsatzen duzu, baina inor ez da alor guztietan ongi eta egoki mugitzeko gai. Gauzak ondo ateratzea nahi baduzu aholkulari bat hartu beharko zenuke. Motibazioz gainezka egongo zara.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Festa eta lagun artean igarotzeko egunak datoz. Primeran pasako duzu eta ondo etorriko zaizu tentsioak askatzeko. Kontuz ibili orde, dagoeneko ez zara gaztetxo bat. Biharamunak gogorak egingo zaizkizu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Gertuko pertsonaren batek mesede bat eskatuko dizu, lana eman eta denbora kenduko dizuna. Pertsona ona zarenez baietz esango diozu, baina gero ez du balio atzetik kezuka ibiltzea. Bere belarrietara iritsi daiteke.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
Ahul eta bereziki nekata sentituko zara. Zergatia begi bistakoa da. Ez duzu behar bezala jaten. Bitamina, kaltzio eta proteina gehiago behar dituzu. Arazoak etxe-tresnaren batekin.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Inoiz ez dugu pentsatzen guri gerta dakigunik, baina gerta dakigu eta zuri ere gertatuko zaizu kontu gehiagorekin gidatzen ez baduzu. Bestalde, itxi ondo etxeko atea, lapurrak sartzea ere gerta liteke eta. Ez duzu zorterik izango.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Nahi baduzi egin dezakezu! Beti besteen iritzien menpe ibiltzen zara. Oraingo honetan zeure plana aurrera eraman beharko zenuke, garai ona da, eta proiektua aurrera eramateko irriak horrekin soilik ondo atera daitezke. Animo!

26

Mendi Martxa 2011 irudiak eta logotipoak. Irudiak mendiak erakusten ditu, eta logotipoak markak eta enpresak erakusten ditu. Irudiaren gainean "MENDI MARTXA" eta "AZE MARTXA!!" idazkiak daude.



JOXE MARI IPARRAGIRRE

BIGARREN HEZKUNTZAKO
INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

AURREMATRIKULA: MAIATZAREN 31TIK EKAINAREN 11RA (BIAK BARNE)
MATRIKULA EGITEKO EPEA: UZTAILAREN 7TIK 13RA (BIAK BARNE)

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.

Sta. Barbara bidea, z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)

Tel./Faxa: 943721403 / 943721413

www.iparragirre.net - jniparragirre@edunet.es

Barceló

Costa
Vasca



Utzi zure ezkontza gure esku!

400 gonbidatuentzako eserlekuak eta erosotasun guztiak zure ezkontza ospatzeko!!

Gainera ezkonberriek hurrengo abantailak izango dituzte:

- Ezkon-suite-a Barcelo Costa Vasca Hotelean, gosaria, ur zirkuitua eta aurpegi tratamendua barne Wellness & Fitness Zentruan.
- Eztei-bidaia Barcelo-k penintsulan daukan hoteletako batean.
- %25eko deskontua ezkon oprietan eta harrera personalizatua... zure amestutako ezkontza izan dadin!

Restaurante Ulía
Hotel Barceló Costa Vasca
Avenida Pio Baroja, 15
20008 Donostia, San Sebastián

Tel. 943 31 79 50
Fax. 943 21 24 28
www.barcelo.com
costavasca.incentives@barcelo.com



IES Hernani BHI

A. Iturriaga-K.Labaka



DEPARTAMENTO DE
EDUCACION, UNIVERSIDADES
E INVESTIGACION
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



Aurrematrikula: maiatzak 31 – ekainak 11



Elektrizitatea

- Instalazio Elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)
- Telekomunikazioa (Erdi Maila)
- Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

Mekanika

- Mekanizazioa (Erdi Maila)
- Fabrikazio Mekanikako Diseinua (Goi Maila)

Lanbide Hastapenak - PCPI

- Operario/a de Mecanizado
- Auxiliar de actividades domésticas y cuidados básicos a personas dependientes

Santa Barbara auzoa, zg. Tfnoa: 943-551188
K. Labaka, 7. Tfnoa: 943-551958

www.hernanibhi.com – e-mail: institutua@hernanibhi.com